

## **Kutxabankek inbertsio-bankaren aldeko apustua indartu du Kutxabank Investment abiaraziz**

- **Sozietatearen akziodun bakarra izanik, Norbolsa izena aldatu du, eta finantza-zerbitzuen eskaintzan, M&A-n eta kapital-merkatuetako aholkularitzan espezializatutako unitatearen aldeko apustua berretsi du**

**2024ko irailaren 11.** Kutxabanken inbertsio-bankaren unitateak Kutxabank Investment izena hartuko du, Norbolsak bere izen sozialaren aldaketa onartu ondoren. Bilakaera hori Balore Sozietateak inbertsio-bankaren jardueran hazten jarraitzeko eta Kutxabank Taldeari balioa emateko duen nahiaren ondorio da.

Orain arte bezala, Kutxabank Taldeko Balore Sozietate gisa jarduten jarraituko du Kutxabank Investment-ek, CNMVk gainbegiratuta.

Sozietatearen akziodun bakarra izanik, Kutxabankek kapitalaren % 100 kontrolatzen du otsailetik, finantza-taldeak finantza-zerbitzuen eskaintzan, M&A-n eta kapital-merkatuetako aholkularitzan espezializatutako unitate baten alde egindako apustu estrategikoaren ildotik.

Ildo horretan, bezeroen eskura dauden zerbitzuen kalitatea indartzearen aldeko apustua egiten jarraituko du 2025-2027 plan estrategikoak, hori lantzen ari delarik Taldea. Kutxabank Investment-ek funtsezko zeregina izango du Taldearen negozio-ildo berrietan, inbertsio-bankan gaitasunak eta merkatuetara sartzeko zerbitzuak indartuz enpresa, jaulkitzaile publiko eta inbertitzaile instituzionalentzat.

### **Balio erantsiko zerbitzuen hazkundera eta dibertsifikazioa**

Kutxabank Investment-ek % 10,7 gehitu zuen negozio-zifra 2024ko lehen seihilekoan; aldi horretan, bilakaera positiboa izan zuen jarduera-ildo guztietan, eta mugarri garrantzitsuak gauzatu zituen kapital-merkatuan, M&A-n eta finantza-zerbitzuei aplikatutako berrikuntza teknologikoan.

Bilakaera hori indartu egin da Kutxabank Investment-ek emandako balio erantsiko zerbitzuak etengabe txertatu eta dibertsifikatzeko estrategiarekin eta Taldeko unitateen artean sinergiak eta lankidetzak sustatzearekin.

Aldi horretako jarduera nagusien artean, hauek nabarmentzen dira:

- **Kapital-merkatua:** kapital-merkatuan erreferentziatzeko aholkulari gisa sendotzea, errenta finkoko 34 jaulkitzailerekin lan eginez. Epe luzeko jaulkipenetan, bi jaulkitzaile publikotan (Eusko Jaurlaritzak eta Andaluziako Junta), biak jasangarriak, parte hartu du, eta lau pribatutan (Enagas, El Corte Ingles, Redeia eta Iberdrola; azken biak, emisio berdeak).
-

Ordaindukoen programetan, Kutxabank Investment ezartzaile gisa sartu da Eroski, OPDE Energy (berdea) eta Abertisen programetan, eta Ferrovialen programan ere parte hartzen du. Sarrera horiekin, Espainian erakunde liderretako baten posizionamendua indartu du, MARFen % 30eko merkatu-kuotarekin.

- **M&A:** Kutxabank Investment-en inbertsio-bankaren jarduerak portaera bikaina izan du, bai enpresa txiki eta ertainen segmentuan, bai Kutxabank Taldearen eta Alantra-ren artean eragiketa handietarako aliantza estrategikoaren garapenean. Estrategia hori enpresa kotizatuen eta kotizatu gabeen mandatuen hazkunde handia ari da eragiten.
- **Berrikuntza teknologikoa:** Kutxabank Investment-ek, Kutxabankekin lankidetzan, % 100 digitalak diren finantza-zerbitzuak emateko plataforma berri bat garatu du. Zerbitzu berri honekin bezero-mota baten joera eta eskaerei erantzuten zaie, independentziaren eta gardentasunaren ikuspegitik ezaugarri bereizgarriak eskaintzen dituen inbertsio-soluzio batekin, digitalizazioaren eskutik.
- Portaera positibo hori Kutxabank Investment-en gainerako jarduera-ildoetan ere erregistratu da: **bitartekaritza, zorroen kudeaketa eta securities services.**

### **Kutxabanki buruz**

Kutxabank erakunde liderra da Euskadin eta Kordoban. 700 bulego inguru ditu, bere jatorrizko lurraldeetan kapilaritate handiena duen sukurtsal-sarea, eta presentzia nabarmena du Andaluzian, Madrilen eta Katalunian. 5.000 profesional baino gehiagoko taldearekin, Kutxabank da, Europako ikuskatzaileen arabera, gure finantza-sistemako bankurik kaudimendunena eta Europan arrisku-profil onena duen hirugarren erakundea.

---